

Eskola jasangarria ziurtagiria Kurtzebarri BHIrentzat



Ibai Alberdi, Endika Hortelano (ikastetxeko Agenda 21 arduraduna), Ángela Agudo (Kurtzebarri BHIko Zuzendaria), Iñigo Urkullu, Uxue Zunuzegi, Markel Bengoa eta Andoni Parra, lehendakariarekin

Donostiako Kursaaen egin zen ekitaldia, Iñigo Urkullu buru zela

Donostiako Kursaaen egin zen ekitaldian 'Eskola Jasangarria' ziurtagiria jaso zuen asteazkenean Kurtzebarri BHIk. Eusko Jaurlaritzak ematen duen ziurtagiria da, eta bere eguneroko funtzionamenduan Eskolako Agenda 21 programak ezartzen dituen jasangarritasun printzipioekin koherentzia frogatzen duten zentroak saritu nahi dira honekin. Honenbestez, IRAES21 sarean sartzen dira.

'25 urte jasangarritasunaren alde' ekitaldiaren barruan jaso zuten Kurtzebarriko arduradunek ziurtagiri hau. Izan ere, badira jada 25 urte Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza eta Ingurumen sailen arteko hitzarmena sinatu zutela Euskal Autonomia Erkidegoan ingurumen hezkuntza garatzeko asmoz, eta horren ondorioz CEIDAK sortu zirela. Hasierako CEIDA horiek gaur egungo Ingurugelak bilakatu dira.

Asteazkeneko ekitaldian, Iñigo Urkullu lehendakaria buru zela, Ingurugelaren eratzearen 25. urtemuga ospatu zen, eta horrez gain, lehendakariak eta sailburu biek, VII. aintzatespenaren prozesua gaingitu duten ikastetxeei aipatu 'Eskola Jasangarria' eman zieten.

